

NAFAR - IZKUNTZAN ORRIA

EUSKALERRIAN BARN

Donostia eta Loiolako

irralien deia

Donostia eta Loiolako Irratiak (Donostiako Herri Irratia dena) «Euskal Kulturaren Bideetatik» Salo bat antolatu dute. Salo honi buruz bi Herri Irratiok Euskal Herri osoko ikastola guztiei deli egiten die hau esanaz:

«Ba dugu salo bat, arratsaldeko zazpitan egiten duguna, hain zuzen ere, ikastolek egiten duten salo bat da. Berehalaxe asteleko gurea. Obeto esan, zuek hau irakurri orduko, asiak izango gure ikastolez ikastola josten, umeen idazlan, ipuin, kanto, musika saiok eta grabatzeko.

Ikastolen ardura duzenok, pentsa ezazu, arren, zer mesede ekar lezakeen Irratiak umeen eziketakako; eta gerta itzazue zeuren umeak, beren lanak irratiz eskein dituzten: idazlanak, bertsoak, kantuak, soinu saiok, antzerkitxoak eta beste zenbait lan.

Del egizuzue, eta horra joango gatzazkizue grabatzera, gero irratiz eskeintzeko. Horretara, gure herrietako ikastolek elkarren berri izango dute, eta gure umeak, elkarren lanak ezagutzuz, gure kulturaz apainago jantziiko dira».

Badakite bada gure gure ikastolak Herri Donostia eta Loiolako Irratiak esaten diena.

«Bertsolari Donuak»

disco berria


Euskal disko berrietan aipagarrienetako bat da nere ustez «Bertsolari Donuak» deritza. Donostiako Usandizaga Etxeak argitaratu berri du Juan Mari Lekuona zuzendua.

Zortzi bertsolarien bertsoak berer donu jator eta zaharrek kantatuak disko honetan agertzen dira.

Zortzi bertsolari hauen izenak: Azpillaga, Basarri, Uztapide, Xalbador, Mattin, Lazkao Txiki, J. Lekuona eta Lekuona.

Zortzi bertsolarien abotsak entzungo ditugu hoy baño ez Euskal Herriko bertsolariarik oheren eta ezagunenak; zergatik, nere ustez, bi bertsolari gutxienez falta bait dira onenetan onenetakoak direnak: Lasarte eta Lopategi, Nafarrokoa bata eta Bizkaiakoa bestea.

Zortzi bertsolari famatuenen abotsak grabatzekotan zortzi hauek grabatuko nituzke nik: Baxarri, Uztapide, Xalbador, Mattin, Lazkao Txiki, Lasarte, Lopategi eta Arozamena?, Azpillaga? Bi az-



ken hauen artean Arozamena nere ustez.

Dena dela disko honek merezi du aipatzea, eta erostea. Gure euskal Diskotegirako oso egokia delakoa nago.

Euskal Herriko soinu tresnak guziak

«Columbia» Etxeak euskal Herriari dagokion disko berri bat argitaratu eman berri du. Disko honetan Euskal Herri Osoko soinu tresnak diran guzuden donuak grabatuak dira; bere erdal izena «Antologia de Instrumentos vascos» da.

Zortzi euskal soinu tresnak agertzen dira: Dulzaina, Txalaparta, Adarra, Trikitixa, Txirula, Tobera, Alboka eta... TXISTUA! jakina.

Eduardo Tarragona jaunaren eskaria

Eduardo Tarragona jauna Barcelona aldeko «Korteteta» Diputadua dugu, Diputatu jatorra alegia. Azken hontan eskari berezi eta garrantzitsu bat Espainia'ko Gobernuari goratu dio katalan euskal eta gallego izenen alde mintzatuz. Erregistro Zibil delakoa gatzelariak giza-emakume

izenak ezekiz baita beste iru mintzaratako (euskera, katalan eta gallegoa) izenak ere onartuak eta idatziz izan ditezake eskaria da.

Gure ustez garrantzi handikoa da gure euskal izenak zabalzea.

Euskal Akademiaren Otsailago urren Billera

Datorren otsailaren 25 ean biar osteguna Donostian dagon Gulpuzkoako Diputazioaren Jauregian, Euskal Bertsolariak bere hileoroko Billera izango du. Orduan: Arratsaldeko lauretan.

Aztertuko diran galak hauek dira:

a) Satrustegi jauren txostena, persona izendegiaz

b) Lizundia jaunaren txostena, batzorde lanak onartzeaz.

c) Aurrezki Kutxen sariak berri.

d) EUSKERA aldizkariaren batzordearen goizeko bilkura.

e) Herri eta herritarren batzordeko lanak berri.

f) Finantziazte asmoak.

Bere garia Billera honen berriak emanen ditugu.

IKUSLE

KONTU KONTARI BEGIZKOAK

Gaiztakerirako indar haundia izaten omen zuten sorkinak. Batzutan, abere ta ondasunetan egiten zuten makurak gaizki humetzen, ezurretan gelditzen edo hiltzen. Jendetan ere bai.

Behin batez, txerriendako kardu eta asunak garbitzen iri zen emakume bat. Entzun bezala adieraziko dut. Uda legorra joan eta txerriari gutxi zen baztarretan. Emakume honek Maya-fana zuen izena eta belar gutxi zuen egun hartan. Sorgin antzeko andra bat joan zitzaion ondora eta esan:

—Ekatzen kardu hoietatik.
—Askotan erremiatu haut —erantzun zion—, baina gaur ezin dinat lagundu; gutxi bildu dinat.

—Ondo paatuko dun —desapiatu zion besteak.
Egun hartatik aurrera ez omen zuten onik izan etxekoandreak. Buru galduta eta gaiztotu egin omen zen. Gaiztakeri asko egiten zuten bai etxean eta bai kanpoan.

Etxekoak konturatu ziren sorginkerien baten mendean zegola eta zerbaitek erabaki zuten. Baziren etsai gaiztoak menpeko jendak sendatzen zituzten santuak Euskalerrian, eta hoietako bat zen Larraunen egoten zena. Zaldian hartu ta badijoaz mendiz-mendi Larraun aldera. Alti-ira heldu ziren ta han ezin inola ere elizan sartu. Asko gosta izan behar zitzaion. Nolabait sartu ondoren, konjuroak egin zitzaion eta kanpora zetozen. Eliz atarian garraxi bat egin omen zuten gaiztakeriak.

—Txerri hoiek! txerri hoiek! —entzun zitoten esaten. Eta txerriaren joan omen ziren haren gaiztakeri. Beste bat zen etxera etortzean. Gaiztakeri guziak kendu zitzaion, baina ttotlet antza gelditu omen zen; buru eskaxeko jende. SAGI

EUSKALTZAINDIAREN BATZARRA

Joan den urtarrileko 31n Euskaltzaindiak bi batzar egin zituen Donostian, Gipuzkoako Diputazioaren Jauregian; bata goizean euskaltzain osoekin bakarrik, eta bestea arratsaldean euskaltzain oso eta laguntzaileekin.

Euskaltzainburuak bere anaia eta euskaltzainburu-ordeak bere ama galduta berri dutela jakinarazi zuen idazkariak, eta biei dolumin agertu zitzaion.

Euskaltzaindiko liburutegirako hartu dir-en liburuen berri eman zen. Liburu hoiak emakume honak elkarok elkarok dira: Donostiako Aurrezki Kutxa, Jakin sorta, Auspicio liburuetgia, eta Etor. San Martin eta Basauri jaunek «Hegatze» liburua eskini zuten (gaurko posisten puska hautatuak). Eta Aingeru Irigarai jaunak «Noticias y viejos textos de la Lengua Navarrorum».


Euskaltzainburu jaunak goizeko bilkura bereziaren berri eman zuen. Aurrezki gaurkotuaren azterketa eta onartzean buru eman zitzaioela esanez; baina ere kontatu zituen Aurrezki hori egitekoan izan diren gora-behera etab atzera-aurerak, hartako batzordea jarri zenez gero-zitik. Aurrezki berri hau hurrengo bilkura batean tink ezarria eta finkatua izango da. Leizarraga beskoitz-arraren obrak argitaratzeari buruz hitz egin zen gero.

Karlos Santamaria jauna zortzi urte arterainoko eskola hiztegia onartzen seguitu beharko litzatekeen prozeduraz mintzatu zen ondoren. Hiztegi hau Donostiako Ordezkaritza prestatu du, jaun askori konsulta eginak eta lan gutzia Mireia jaunaren gidaritzapean jarrit. Eztabaida bat sortu zen hemen, eta haxe zen eztabaidaren gaia: batzorde batek Euskaltzaindiak berea bezala har dezan zer-nolako bideak hartu behar du. Eztabaidan ideia argiak azaldu ziren eta gihontz hurrengo batzarrerara txosten, bat ekartzea erabaki zen.

Xabier Gereño jaunaren eskariz, filatelia hiztegia (hartako batzordeak prestatua) oraingo erabil ditekela erabaki zen. Aditz batuaeren batzordeak prestatu dituen bi zatien kopaki euskaltzainei zabaltu zitzaizkien eta hilaeteko epea uzten da oharrak eta zuzenketak biltzeko.

(EUSKALTZAINDIKO PRENSA BULEGOAREN AGIRIA)

EUSKAL IZENAK NEREA



Hona hemen guraso euskaldunei atsegin izango zaien emakume izena. Eragozpenik gabe sartua da. Bost edo sei aldi izan dugu Iruñeko sortu berrien errezkadan. Ez du oztoporik izan.

Duela urte asko, Eladio Eparza lesakarrak honen antzeko izena eman zuten bere liburu bati: Nere. Geroztik, Bizkaya aldean Izendegitako jaunak onartua zuten Nerea. Orain gure artean dugu. Izan ederrak maite dituzten gurasoengatik poztzen gara.

HASIERA
Alaba izaten bazuen Nerea ezartzea erabakia zuen adierikide batek. Bizkaitarra zen eta alabatxo gertatu. Ez zitoten izen hori onartzen eta hitz joku txiki bat prestatu zuten: Maiztaren hamabian Nere, eta bere lagunak festa ospatzen bai du Elizak, kristau izendegiko izena bezala agertu zien. Eta aitzakirik gabe ezarri.

Ez da gaurko kontua. Nik erdi ahaztua nuen eta ez nintzan oroitu gero, aurtien telefono ukaldi bat izan ez banu. Iruñetik zen. Aitz! zion hariaren beste aldetik norbaitek; nexka izan da!

—Eta zer izen eman diozu?

—Nerea.

—Eta Juzgado kontua?

—Ez dut trabarik izan. Beren liburuxka batean begiratu ta kristau izena dela erantzun didate: Nere, alegia badela Elizaren izendegian. Eskerrak emen diotki eta kitto.

Gure arteko gauzak hala dira; batzutan zuzen ateratzen dira, eta beste gehienetan makurtzen. Nere, santuak baditu lagunak eta, bada epada, beren izenak emango ditugu. Hauk dira: Nere, Aklito, Domitila ta Pankrazio. Egun beran eta elkarrekin ospatzen dira denak. Nork daki honen antzeko beste izen euskaldunen batendako ez diren ongi etorriko!

Izen berri bakoitzak badu bere erretolika txikia eta hau izan da gaurkoaren gertakizuna. Nere, ikusie ez balitz, ez sinesteko modukoa. Zenbat aldetara jokatu behar izaten den gero, eskubide baten lortzeko!

SAGI

“Kixket” etxeko sendia Abaurre Gainean (“Aida” argazkia).

ABAURREA GAIKEKO EUSKAL KANTA ZARRA

Kixket etxeko, larogei urtetik gora dituzten bi izeba zarrei entzun nien, berak txikiak zirala nola 12 neska, Kandalaria bezperan, biltzen ziran, Zerealde'an zan elizatzon eta an Zeruko Amari kantatzen zioten kanta luze bat. Ementxe agertzen dut zati bat. Arritzekoa da aztu gabe amona aiek aifi ondo jasota eukitzea. Merezki luke donu ta guzti ondo altxatzea.

“A mabirgina zegenonean, gabera illuna batean illuna argitzen zion, illuna zegen lekuan. San Gabriel jarri zitzaion, belauniko aurrean espantu aundia, artu zuten ura an ikusi zutenean. Ez espanta, ez Maria, ni naiz mandataria, mandataria, nundik nundik?, zeruko koronetatik. Mandataria zer dakarazu zeruko koronetatik? Berria berrik, berriak eta berriak guztiz tristerik. Judio marrano traidore aiek, eman zidaten edari, edaria dolorea, ospinarekin edanea. Ark erretzen zuan ene biotza, atzein ura bezela, ene seme onezia, oi zer da zure merezia. Ohenik eta kulparik gabe, oi zure laguen ixuria Amai andrea zaude ixillik, ez egin oituz, arren nigarririk. Ene gaurko odol ixurik, ez daukazula konturik.

Amen amen, egarri naiz egarri, biotzean dut ageri. Amen Amen, dela Jesus guzien salbatzailea, zure izenean erranen dugu, gogo onez Ave Maria, baita ere Pater Noster, jaunak dakigun bala eta bertze munduan Gloria.”

Kanta zarra onek 82 urtekin geiegi ez nekatzeko arren pakean utzi nuan. Donu ere oso zarra da, merezi luke osorik artzea. Gainera uste dut Resurreccion Maria de Azkuek eta Aita Donostiak ez dutela ezagutzen kanta zarra au.

LATXAGA

AXULAR SARIA

UKAFUERTE

Gizon bat soraoan omen zailen lanean. Txamarra zuinean (muga baztarrean) utzi zuen. Lana despitatu ta asi zan txamarra bilan eferra joateko eta ez zuen bilatzen. Inguru hartan jituak baziran, Bati galdetu zion ea bere zan txamarra jaso zuena. Jituak seme bat zeukan ukafuerte izena zuena. Eta esaten dio:

—Ukafuerte, nere seme gaizto kastigatua!
Ikusiok gizon onen txamarreta?
—Ez, aita!, ez, ama!
—Ai gizontxo gizontxual!
Esan dizut nik zuri nere seme jituak ez dala ortarakual!

Juan Francisco GOICOECHEA

Urdiain

MARGARITAIN TXAKURRA

Orai dela urte batzuek bizi zan herri batean, neskatiko bat deitzen zena Margarita. Nai zuen zakur bat. Karri zioten erregeak, banan trapuzkoa. Neskatikoa nai zuen egiazkoa Urrengo urtean karri zioten egiazkoa, arras konten zagon harekin. Garbitzen zuen orrestatu eta atratzen zuen pasayeta, harekin aizen zen yostetan. Auniz gustetzen zitzaion panpina baño gehiago. Aunditu zen neskatikoa eta bere eskolak launek bazuten pasayetara gateko bixirrike. Margaritak etzuen diruik erosteko eta orduen pentsatu zuen:

—Saldukot txakurre eta haren diruekin erosten alkot.

Pena aindie maten zion txakurrengatik alde egitea, orduen pentsatu zuen ez saltzia. Baño egun batez ikustean bere launek bazuzile denak merendatzera iruxirrikan. Saldu zion bizi herri aundi batean andre bati, hunek eman zion mile peza. Margaritak erosi zuen iruxirrika baño pena aundie bazuen etzelakotz aizen yostatzen bere zakurreikin.

Eguberri mezperan erosi zion andrearengatik karta bat urten zion: Txakurre hil zela penaz.

Neskatikoa arizan nigarrez eta ordutan ta pena gehiago sartu zitzaion. Eguberri egunean pentsatu zuen:

Emain diot iruxirrika nere launei berak ez tu erosten ahal, nai dut obra ona egin.

NEREA AIZPURUA.

KONZEZIONISTEN ESKOLA.

ELIZONDO. 7 urte.

OMENALDIA

Urtarrilaren 16-an Donostiako Turismo Etxeak antolatutik, MATTIN bertsolariari omenaldi eder bat egin zaio Donostiako «Astoria» delituko antzokian. Lehena ere Elkarte horrek baditu beste hiru omenaldi eginak; ihaz Lasarteri, aintzineko urtean Xalbadorri eta lehenago Uztapideri. Oraingo hontan Mattin ahetzetarri. «Astoria» bete bete eginda yar-

leku uts bat ere agertzen etzela eta ehunka bertsotalek kanpoan gelditua sarbiderik etzutelakotz, beharrik festaren antolatzailek uts hori zuzendu zutela kanpoko aldera altabozak jarritaz eta gis-a hortan bai ase ere kanpoan gelditu bertsot egarria.

Ongi merezitako omenaldia gure Mattinari egin ditekena, denek ain maite dute-

na, bertsolari alai eta yostakina, gizon xalao eta bertsotan ere hobereetakoa.

Hamairu bertsolari arri izan diren omenaldi hontan: Uztapide, Xalbador, Lasarte, Lopategi, Azpillaga, Arotzmena, Agirre, Lazkao-Txiki, Garmendia, Gorrotxategi, Lazkao, Lizaso eta Mitxelena; Jose Mari Iriondo jauna zu zendarri zutelarik.



Lehenik bertso bana kantatu zuten, denek Mattin geroaipatuz. Gero binaka gai bati buruz eta hirun bertsotegero atsedan pitka bat hariturik azkenengo saioa, bakarika eta hirun bertsotegero, Iriondo jaunak balotxari gai bat emanik. Erran behar eztago bertso onak entzun gertutela, bai hunkigarriak nola yostakinak eta denak yendearen gogokoak.

Azkenengo saio hau egin ondoren Donostiako Turismo Etxeko Aintzindariak zilarrezko edergailu bat ezarri zuten Mattin-en eskuetan eta bai buruan ere Txapel aundi bat. Entzuleek txalo beroak jo zituzten beren bozkarioa ongi agerturik. Gero Mattinek hiru bertsotekin eskerrak eman zituen. Bertso zoragarriak ahetzetarrenek donu atseginarriarekin kantatuak eta aunitz gustatu zitzaizkigunak.

Azkenean besta eder bururatzeko entzule guziak zutik eta debozio audiarekin Gernikako Arbola kantatu ginen.

Ihaz eta aintzineko urte hoietan bezala entzuleen artean auteskundeak egin ziren, urrengo urterako zein behar zen aukeratu omenaldia egiteko. Basarri izanduz aukeratu. Zorionak.

Beste urtetan bezala bazkaria Urbia jatetxean eta bazkalondoa umore ona, bertsoak ugari eta denok atsegitzez beterik. Besta ederki joana da, goren bihotzetan oroitzen edo bat karri dugularik. Zorionak Mattin! Auniz Urtezi!

M. IZETA